OIARTZUNGO UDALA

OIARTZUNGO NERABEEN ZERBITZUA (TOPALEKUA) EMATEKO PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea da zehaztea Oiartzungo Udalak, bere gazteria-politikaren baitan, Oiartzungo Nerabeen Zerbitzuaren kudeaketa esleitzeko lehiaketaren baldintza teknikoak.

Kontratuaren exekuzioa zerbitzuaren diseinuan, plangintzan, antolamenduan eta garapenean datza, plegu hauetan jasotakoaren arabera eta Udaleko Gazteria teknikariak eman ditzakeen jarraibideen arabera.

2. JUSTIFIKAZIOA. GAZTERIA-POLITIKA

2.1. Gazteria-politika

Oiartzungo Udalaren Gazteria-politikaren xede nagusia da herriko haurrei, nerabeei eta gazteei garapen-adin bakoitzean, sozializazioren bidez, helduarorako tresnak eskuratzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea, gozatzea ahalbidetuz, etapa bakoitzak dituen bi dimentsioetan:

- Berezko balioa eta esanahia duen bizi-etapa gisa, asmoa da pertsona bakoitza bere bizitzaren protagonista izatea, hiritartasun-eskubideei lotuta eta ehundura sozialaren ezinbesteko zati izanaz.

- Gaitasun pertsonalak eta gizarte-loturak landuz, ikasiz eta indartuz, emantzipazio-prozesu progresibo bat ahalbidetzeko etapa gisa; alegia, heldutasunera arrakastaz eta asetasunez igarotzeko aukera ematen duen etapa gisa. Izan ere, heldutasunean lortzen baita erabakiak hartzeko eta erabaki horiek bizitza-proiektu pertsonal batean gauzatzeko autonomia mailarik handiena.

2.2. Gaztematika. Gipuzkoako haurren eta gazteen sustapenerako sistema

Gaztematika, Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistemaren arabera, Gazteria-politika bultzatzeko tresna nagusiak bizi-etapa bakoitzari zuzendutako zerbitzuak dira:

- Haurrentzako Balio Anitzeko Zerbitzua (aurrerantzean HBAZ)
- Nerabeentzako Balio Anitzeko Zerbitzua (aurrerantzean NZ)
- Gazteentzako Balio Anitzeko Zerbitzua (aurrerantzean GZ)

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

2019ko abenduaren 20an, Oiartzungo Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak lankidetza-hitzarmena sinatu zuten, "Gaztematika - Gipuzkoako Haurren eta Gazteen Sustapenerako Sistema" herrian garatzeko. Hauek dira Gaztematikaren konfigurazioari eta funtzionamenduari zentzua eta orientazioa ematen dizkioten printzipioak, balioak eta irizpideak:

- Haurren eta nerabeen sustapen-politikaren izaera sektorial eta berariazkoa zein integrala eta zeharkakoa.
- Zehar-lerroak: berdintasuna, parekidetasuna, aniztasun kulturala eta euskararen sustapena.
- Erantzukizun publikoa eta gizarte-partaidetza.
- Koordinazioa eta sare-lana.
- Proaktibotasuna, gertutasuna, pertsonalizazioa, jarraikortasuna eta prebentzioa.
- Ezagutzan oinarritutako kalitatezko esku-hartzea.

NZak sei jarduera-arlo zabal hauek eskaintzen dizkie Oiartzungo nerabe guztiei:

1. Informazioa: Informazioa funtsezko tresna da, hartzaileei arlo edo sistema guztietan (kulturan, osasunean, gizarte-zerbitzuetan,...) eskura dituzten baliabide eta aukerak baliatzen laguntzeko. Informazio erabilgarria, eraginkorra, esanguratsua eta antolatua izango da, beti ere, beraien intereseko gaien ingurukoa.
2. Orientazioa: Orientazioak nerabeei laguntza ematen die, dituzten aukerak ezagutu ditzaten, hautabideak identifika ditzaten eta beraien bizitzako hainbat alderdiri buruzko erabakiak har ditzaten. Noiz edo noiz, pertsona horren beharrari hobeto erantzungo dion beste eragile edo instantzia batera bideratuko da.
3. Bide-laguntza: Bide-laguntza da nolabaiteko egonkortasuna eta segida duen laguntza eta jarraipen-harremana, nerabeek erabakiak hartzeko, baliabideak erabiltzeko, jarduerak egiteko, aukerak bereizteko eta loturak eratzeko helburua duena.
4. Aisialdi hezitzailea: Aisialdi hezitzailea nerabeen denbora librean egindako esku-hartzea da; ludikoa eta atsegina izanik, laguntza harreman baten bidez bizitzarako gaitasunak, jarrerak eta balioak hartzea edo garatzea lortzen duena.
5. Adierazpenerako eta partaidetzarako bideak: Nerabeek zerbitzuei eta beren bizitzako beste arlo nabarmen batzuei buruz iritziak adierazteko, proposamenak helarazteko, erabakiak hartzeko, ardurak hartzeko, bakarrik edo besterekin batera kudeatzeko, eta neurri batean kontrola egiteko benetako aukerak sortzea eta dinamizatzea dakar.
6. Sorkuntzarako eta produkziorako bideak: Nerabeek beren sortze- eta ekoizte-ahalmena indartuko eta bideratuko dizkien jarduerak eta proiektuak garatzeko eta ikusarazteko benetako aukerak sortzea eta dinamizatzea.

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

Gaztematikak nerabeen eta gazteen beharrei eta eskaerei erantzuten die, hurbileko zerbitzuak eskainiz, zuzeneko arretaren bidez, haurren. Bultzatzen du beste esparru eta sistema batzuekin lankidetzan aritzea eta sarean lan egitea ere.

Oiartzungo Udal Gazteria-politikak bat egiten du Gaztematikaren irizpideekin, helburuekin eta funtzionamenduarekin. Politika horren lehentasunetako bat da Udala sistemako zerbitzuez hornitzea eta horiek koordinatzea, dagokien erakundeekin edo zerbitzu enpresekin elkarlanean.

Horretaz gain, nerabeentzako zerbitzuak erreferentziatzat du Oiartzungo Udalak, 2021eko martxoaren 3an, OinHerri Herri Hezitzaileen Sareko kide izateko sinatutako akordioa. Zazpi kontzeptutan oinarritzen da OinHerri, Herri Hezitzaile Sareak proposatzen duen eredua. Zazpi eremu horiek elkarrekin uztartzen, garatzen eta aberasten dira, eta, proposamen koherente eta oso bat egin ahal izateko, zazpiek halabeharrez elkarrekin joan behar dute. Eta horrela formulatu dira OinHerriren lan-eremua eta xedea:

"Jolasa eta sormena ikasteko eta garatzeko berariazko tresnatzat dituen haurren kultura aitortzea; hori oinarri hartuta, haurrei benetan parte hartzeko eta erabakitzeko ahalmena ematea; eta eurek eraikitako aisia hezitzaile eta euskaldunaren bitartez, aniztasunean berdin eta parekide izanez eta ingurumen naturala eta kulturala zainduz, komunitate-sarea eta auzolana indartzea eta pertsonen arteko harreman osasuntsu, justu eta asegarriak jostea."

Bestalde, 2024/25 ikasturte arte martxan egon dago Oiartzunen Kuadrillategi egitasmoa: DBH 1 eta DBH2ko gazteentzako aisialdi-eskaintza. Oarsoaldean Euskara-sailetatik sustatutako egitasmoa izan zen sorreran: kuadrillan esku-hartuz, gazteen hizkuntza-ohiturak aldatu nahi dira, euskaraz egiten ez dutenek euskaraz egin dezaten eta euskaraz egiten dutenak besteen eredu izan daitezen. 2025/26 ikasturtean, Oiartzungo Udalak Kuadrillategi proiektuan zuzenean parte hartuko ez badu ere, eskualdeko Kuadrillategik antolatzen dituen jardueretan parte hartzen jarraituko du.

Aurkeztutako marko hau garatzeko tresna nagusiak toki-mailako sustapen-zerbitzuak dira: Haurrentzako Zerbitzua eta Nerabeentzako Zerbitzua. Zerbitzu horietatik bigarren zerbitzua emateko helburua du baldintza-plegu honek: Nerabeen Zerbitzua –**NZ** aurrerantzean-.

.

3. ZERBITZUAREN XEDEA ETA EZAUGARRIAK

Nerabeentzako zerbitzua publikoa da, nerabe guztientzako erreferente izan nahi duen arreta eta gizarte-hezkuntzaren sustapenerako Udal-zerbitzua, hezkuntza-asmoa oinarri duena eta hezitzailearen eta nerabeen arteko harremana abiapuntutzat duena.

Metodologiaren ikuspegitik, nerabeentzako zerbitzu balio-anitzak bere lanaren oinarritzat ditu taldekako eta banakako esku-hartze proiektuak. Proiektu horien

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

programazioan eta kontrolean, funtsezkoa da nerabeak pixkanaka gehiago hartzea parte, eta arian-arian beren gain konpromiso eta ardurak hartzea.

Ekintza arloen artean, erdigunean daude aisia hezitzailea, bide-laguntza, eta adierazpenerako eta parte hartzeko bideak.

Zerbitzua Landetxe 2 eraikinean eskainiko da, nahiz eta hezitzaile-taldeak beste eremu batzuetan ere presentzia izango du (eremu irekian, ikastetxeetan, digitalean…).

Topalekuan, gazteek modu libre jolastu ahalko dute, baita ere zuzendutako jolasetan edo jardueretan parte hartu ere. Edonola ere, zerbitzuko profesionalak uneoro izango dira bidelagun.

Zerbitzuaren kudeaketak eta dinamizazioak ondorengo baliabideak izango ditu eskuragarri:

- Baliabide ludikoak: sorkuntzarako materiala, mahai-jolasak, ikus-entzunezko materiala eta abar.
- Sorkuntza- eta adierazpen-tailerrak.
- Proiektuak, sare sozialak eta parte hartzeko espazio.
- Irteerak (batez ere Oiartzun eta bere inguruak lehenetsiko dira).

Topalekuak koherentea izan nahi du udalerriko nerabeei zuzendutako tokiko proposamen guztiekin. Nerabeen nortasuna errespetatzeko ikuspegitik abiatuta, Zerbitzuak aukera ematen du egungo errealitatea hobeto ezagutzeko eta hari egokitzeko.

Nerabeei zuzendutako zerbitzu honen oinarri dira 12-17 urte bitarteko gazteek dituzten behar sozio hezitzaileak; behar horiek asebetetzeko esku-hartze planifikatua eta metodologia sistematizatua eskaintzen ditu. Nerabeentzako Zerbitzuak nerabeak hezitzeko helburua du eta horrela definitzen dugu:

- Balio-anitzeko proposamena da. Zerbitzuak, nerabea bere osotasunean eta konplexutasunean hartzen du pertsonaren garapen integrala lortzeko.
- Partaidetzazko egitura bat da. Nerabeek aktiboki hartzen dute parte zerbitzuan; lan egiten da nerabeak beren inguruko errealitatea ezagutu dezaten eta protagonistak izan daitezen.
- Sustapeneko zerbitzua da, aukerak (laguntza, dinamizazioa, ikaskuntza, garapena, loturak, etab.) sortzen dituena.
- Komunitatearen parte da. Nerabeentzako zerbitzua herriaren dinamikan sartuta eta beste eragile eta talde batzuekin harremanetan dago eta elkarrekin lan egiten du.

Hauek dira zerbitzua osatzen duten elementuak:

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

- Ekipamendua, nerabeak egoteko toki bat eta erreferentzien gune nagusia.
- Eskaintzen diren jarduerak eta ekintzak, ekipamenduan nahiz beste espazioetan (udal eraikinak, eremu irekia (kalea) eta eremu digitala).
- Harreman eragingarri baterako hezitzailez osatutako profesional talde bat.

Haur, nerabe eta gazteei zuzendutako arretaren tokiko sarean txertatzen da. Sare horren baitan era koherente eta koordinatuan lan egin behar du.

Zehatz-mehatz, Topalekuaren xede nagusia da Oiartzungo nerabeen beharrei erantzuna ematea. Beharrez hitz egitean, nerabearen eta bere ingurunearen arteko mendekotasun-harremanaz eta, aldi berean, norbanakoak ingurune hori eraldatzeko duen ahalmenez ari gara. Oro har, hauek dira etapa horren beharrak:

- Haien bizitzaren protagonistak izatea, identitatearen eraketan eta trantsizioetan (haurra izatetik nerabe izatera; nerabe izatetik gaztea izatera) funtsezkoak diren gaitasun eta baliabide pertsonalak indartuz: baloreak, arauak, jokaerak, jarrera kritikoa, erabakiak hartzea, arriskuak kudeatzea.
- Haien aisialdiaz disfrutatzea eta gozatzea era parte hartzailean, beren gustuak eta iritziak abiapuntu izanik interes-gune berriak deskubrituz, sormena eta esperimentazio-prozesuak ahalbidetuz eta denbora librea autokudeatzeko urratsak eman ditzaten aukerak emanez.
- Gizarte-harreman eraginkorrak izatea, lagun-talde baten partaide sentitzea, helduekiko konfiantzazko harremanak sortzea eta komunitatean integratua sentitzea, norbere buruarekiko konfiantza indartuz eta besteekiko errespetuz tratatua izanez.
- Babesa, errespetua eta beren giza duintasunaren aintzatespena izatea.
- Bizitzarako trebezia, gaitasuna eta jarrera baliagarriak lortzea eta garatzea.
- Autonomia eta erantzukizunez aritzeko beharra: erabakiak hartzea, nork bere gain arrazoizko arriskuak hartzea, aukeratzea eta erantzukizunez hartzea.
- Elkarrekin bizitzen ikastearekin zerikusia duten helburuak: gazte eta helduekin bizitzen ikasteko beharra, adiskidetasuna, harreman-sareak, partaidetza-taldeak, sare fisiko eta birtuala sortzea eta bertan parte hartzea.

4. ZERBITZUAREN HELBURUAK

Nerabeei arreta eskaintzeko giltzarria da Nerabeentzako Zerbitzua (topalekua): gertuko zerbitzua (metodologian eta harremanetan), iraunkorra, parte-hartzailea, komunitarioa eta eraldatzailea. Zerbitzuaren helburu orokorrak hauek dira:

- Nerabezaroan eta herriko 12-17 urte bitarteko nerabeen zerbitzura dagoen egitura erreferentziala izatea, hurbilekoa, gertukoa eta jarraitua.
- Nerabeen garapen eta eraikuntza pertsonalean laguntzea trantsizioak erraztuz.

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

- Esku-hartzeko espazio desberdinak (aurrez aurrekoak zein digital edo birtualak), eragina dutenak eta nerabeen beharretara egokituak sortzea, osagarriak direnak eta beste zerbitzuetan eskaintzen dena konpentsatzen dutenak.
- Nerabeak aisialdiaz era aktiboan, parte hartzailean, sortzailean eta osasungarrian gozatzea.
- Nerabeen artean aniztasuna ezagutzen eta ezberdina dena onartzen laguntzea.
- Hezkidetzan ardaztutako zerbitzua eskaintzea, eta neska, mutil, eta nerabe ez bitar zein transen arteko berdintasuna bermatzea.
- Nerabeen arteko harreman eta portaerak tratu onetan oinarritutakoak izan daitezen sustatzea: maitasun, sexualitatea eta harreman sexu afektibo osasuntsuak sustatuz, eta indarkeria matxistaren prebentzioa lantzeko neurriak hartzea.
- Nerabeen artean euskaraz egitea ohikoa izan dadin bultzatzea eta horretan gustura aritu daitezen laguntzea.
- Parte hartzeko kultura aktibo eta arduratsua sortu eta hedatzea, nerabeak komunitateko parte diren subjektu aktiboak izan daitezen.
- Nerabeen parte-hartzea zerbitzuaren eremu guztietara zabaltzea, diseinu, planifikazio eta ebaluazio parte-hartzaileak helburu izanik.
- Nerabe-izaerei eta haien zailtasunei arreta emateko sareko lan-sistema komunitario batean parte-hartzea.
- Nerabeen aisialdia bermatzeko modu desberdinak, suspergarriak eta sortzekoak ahalbidetzea.
- Nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin haiei arreta emateko modu egokiak eta eraginkorrak sortzea eta partekatzea. Hala nola, udaletik bideratzen diren egitasmo eta planak garatzen laguntzea.
- Antolakuntza mailan, nahiz arlo tekniko-profesionalean, beharrezkoak diren betebeharrei eta baldintzei erantzutea, nerabezaroari arreta egokia emateko eta kalitatezko esku-hartzea garatzeko.
- Nerabezaroari arreta emateko, beharrei erantzuteko eta horretarako definitu diren ekintzen programazioari erantzun globala, estrategikoa eta faseekin planifikatzea.

5. NZ ZERBITZUAREN PRESTAZIOARI BURUZ. ZERBITZUA EMATEA

Egin beharreko lana, 4. ataletan azaltzen diren helburuak betetzera bideratuko du esleipendunak eta baita eman beharreko zerbitzura ere, beti ere Oiartzungo Udaleko Gazteriaren Politikaren baitan eta Gazteria eta Kirola sailaren zuzendaritzapean.

Erakunde esleipendunak udal-arduradunek zehaztutako orientabide eta arauak beteko ditu. Nerabeentzako zerbitzuak autonomiaren eta erantzukizunaren sortzaile izan behar du. Bide horretan, nerabeak zerbitzuaren parte izan behar dira; parte hartzea ez da mugatuko beren interes eta nahiak adieraztera, baizik eta, mailaz maila, zerbitzuak

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

antolatzeko fase guztietan (planifikatzea, gauzatzea eta ebaluatzea) parte har dezaten sustatuko da.

Nerabeentzako zerbitzuaren kudeaketan bi lan-eremu bereiziko dira: alde batetik arreta zuzena, hau da, nerabeekin egin beharreko esku-hartzea zerbitzua (aurrez aurrekoa nahiz digitala) eremu komunitarioan garatzea; eta, bestetik, zeharkako arretaren barruan, sustatzea, planifikazioa, koordinazioa eta antolaketa.

5.1. Zuzeneko arreta

Nerabeen interesak eta gogoak azaleratuko eta landuko dira zerbitzuan, beraien parte-hartzea bilatuz zerbitzuaren eskaintzan. Zentzu horretan, herriko nerabe guztiak izango dira zerbitzuaren jomuga. Nerabeen adinari egokitutako programazioak eskainiko dira. Era berean, zerbitzuaren funtzionamendu egokirako ezarri beharreko bizikidetza arauak erabiltzaileek eta lan-taldeek elkarrekin eztabaidatuko eta adostuko dituzte. Eskaintza izango da nerabeen eskariak eta hezitzaileek antzemandako beharrak asetzeko tresna.

Ekintza-arlo nagusiak hauek izango dira: informazioa eta orientazioa; bide-laguntza; aisialdi hezitzailea; adierazpenerako eta partaidetzako bideak; sorkuntzarako eta produkzio bideak. Antolatutako ekintzez gain, antolatu gabeko uneak ere aurre ikusiko dira, horietan nerabeek modu askean jolastu, hitz egin edo atseden hartzeko aukera izan dezaten. Besteak beste, eskaintzak honako hauek hartuko ditu bere baitan: antolatu gabeko jarduerak, antolatutako jarduerak, proiekzioak, ikuskizunak, irteerak, sare sozialetan ekintza dinamizatuak, alokairu-eskaintza edo antzekoak, herriko eta auzoetako ekimenetan parte hartzea (jaiak, txapelketak, ...).

Ezinbesteko tresna izango da langilearen eta erabiltzailearen arteko harreman hezitzailea eskaintza antolatzerakoan. Euskara izango da **NZ** zerbitzuen hizkuntza eta zerbitzutik sexuen eta generoen arteko berdintasuna zein kulturartekotasuna sustatuko dira, jatorri ezberdinetako nerabeen aukera berdintasuna bultzatuz (hauek dira zerbitzuaren zehar lerroak). Zerbitzuak ere ezinbestean izan behar du inklusiboa, aniztasun funtzionala edo desgaitasuna duten erabiltzaileak aintzat hartuz. Erabiltzen diren materialek eta lantzen diren edukiek irauliko egingo dituzte genero-rolak eta estereotipo sexistak. Hala, hizkuntza- eta kultura-aniztasuna lantzeko baliagarri diren materialak eta ekintzak prestatuko dira.

5.2. Zeharkako arreta

Arreta zuzena eskaintzeaz gain, hezitzaile-taldeak zerbitzua planifikatu eta ebaluatuko du. Herriko eta eskualdeko eragile zein Udaleko beste zerbitzuekin koordinatuko da, bereziki nerabeekin lan egiten dutenekin (Gizarte-zerbitzuak, Hizkuntz-normalizazioa, ikastetxeak, etab.), hauen behar anitzei era osagarrian erantzuteko. Hezitzaile-taldeak eta gazteria-teknikariak bilerak egingo dituzte **hilean behin**, zerbitzuaren jarraipena egiteko. Era berean, haurrentzako balio anitzeko zerbitzuko koordinatzailearekin **urtean behin** koordinatuko da, hartzaileei buruzko koordinazioa bideratzeko.

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

5.2.1. Plangintza-lana eta ebaluazioa

Zerbitzuak, gizartearen hezkuntzarako esku-hartzeko proposamena den heinean, planifikatutako espazioa izan behar du; alegia, planifikazio-sistema argia behar du izan. Aldiro berrikusiko den sistemak beti izango ditu abiapuntu nerabeen beharrak eta, horien arabera, helburuak zehaztuko ditu.

Horrela, esku-hartze marko konpartituaren araberako etengabeko planifikazio-zikloa izango du oinarrian: helburu, programazio, ekintza eta ebaluazio jarraitua. Horiek guztiak nerabeen parte hartzearekin garatuko dira.

Planifikaziotik eratorritako programazioetan bermatu beharko da pertsonen eta komunitatearen beharrei erantzutea. Halaber, aipatutako zehar-lerroei erantzun beharko zaie (inklusioa, hezkuntza eta genero-berdintasuna eta euskara) eta aurrera eramango diren ekintzek jarduera-eremuetan tokia izan beharko dute.

Plangintza-lana da lortu nahi diren helburuak finkatzeaz eta horiek lortu ahal izateko moduaz hartzen diren erabakiak lantzeko prozesua, beti ere aurrekari jakin batzuetatik abiatuz burutzen dena (ebaluazioak, Haur- eta Gazteria-alorraren planifikazioa, pertsona-erabiltzaileek egindako proposamenak eta balorazioak...).

Planifikazioak, helburuez gain, NZ zerbitzuak garaturiko jarduerak jasoko ditu bere baitan (zuzeneko arreta, programazioak, barruko lanak...). Arreta berezia eskainiko zaio jarduerak behar bezala egituratzeari eta plangintza-lanean eta erabakiak hartzeko garaian parte hartzeko aukera eskaintzeari.

Ebaluazioa da zerbitzuari eta horren ingurukoari buruzko informazio lortzeko eta lantzeko egiten den guztia eta jasotzen duen prozesua. Azken batean, jarduera-aldi berri bati aurre egin ahal izateko behar beste azalpen, analisi eta balorazio eskuratzea. Nerabeen partaidetza ezinbestekoa izango da Zerbitzuaren ebaluaketa behar bezala egiteko, gutxien gutxienean, alderdi hauek aztertuko ditu: beharrak eta baliabideak, jarduerak eta eragina, kuantitatiboki zein kualitatiboki. Datuak sexuagatik bereizita jasoko dira ebaluazioetan: neska/mutil erabiltzaile-kopurua neurtuko da, datu horiek aztertuko dira eta genero adierazleak sortuko dira.

Zerbitzuaren ebaluaketak neurtuko du erabiltzaileen asebetetze-maila eta, uneoro, maila hori hobetzeko baliabideak eta jardunbideak proposatuko ditu. Urtean zehar, ondorengo dokumentazioa aurkeztu beharko da:

- Zerbitzuaren urteko planifikazioa
- Ekintza guztien balorazio fitxak, behar besteko informazioarekin
- **Hiruhileko** jarraipen-txostenak eta hurrengo lauhilabeteko planifikazioa
- Urteko memoria

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

Honez gain, esleipendunak aurkeztu beharko du zerbitzurako egindako erosketei eta antolatutako ekintzei dagozkien gastuen eta diru-sarreren balantzea, fakturekin batera. Balantze hori **urtean behin** aurkeztu beharko da eta oniritzia eman beharko dio Udaleko gazteria- eta kirol-teknikariak.

5.2.2. Barne-antolaketa

Zerbitzuak bere baitan antolatutako espazioa izan behar du. Barne-lanerako denbora eta funtzio definituak behar dira elementu horiei erantzuteko: giza baliabideak, baliabide materialak, Udalarekiko harremana, entitatearekiko/enpresarekiko harremana, taldearen dinamizazioa eta prestakuntza.

Barne-antolaketaren barruan hartuko dira:

- Lantaldearen dinamizaziorako beharrezkoak diren bilerak.
- Lantaldeak Gazteria-teknikariarekin izango duen koordinazio-harremana.
- Zerbitzua etengabe egokitzeko eta helburuak betetzeko beharrezko hausnarketak.

NZ zerbitzuko langileak etengabeko prestakuntza jasoko dute; horretarako, identifikatu egingo da zerbitzuaren eta hezitzaileen beharrak zeintzuk diren. Beharrak antzemanda, diseinatuko den prestakuntza-planak zerbitzuaren helburuak lortzen lagunduko du.

Bestetik, hezitzaile-taldeak orduak izango ditu zerbitzuaren komunikaziorako tresnak sortzeko eta mantentze-lanak egiteko, formakuntza-saioetara joateko eta, oro har, Gaztematikako sarearen partaide izateko foro eta lan-taldeetan parte hartzeko.

5.2.3. Koordinazio-lana

Koordinazioak berebiziko garrantzia du nerabeentzako zerbitzuaren martxa egokirako. Nerabeen beharrei erantzuteko, elkarlanean aritu behar da hainbat eragilerekin. Udalarekin egingo den gutxieneko koordinazio-lana honakoa izango da:

- Hilean behin, Zerbitzuaren jarraipen-bilerak: Zerbitzuko koordinatzaile teknikoak eta Udaleko Gazteria-teknikariak hartuko dute parte.

- Hiru hilean behin (Ebaluazio Txostenak entregatu ostean), Zerbitzua ebaluatzeko bilerak: zerbitzuko koordinatzailea, hezitzaile-taldea eta Udaleko Gazteria-teknikaria.

Guzti hori gauzatu ahal izateko, zerbitzuak koordinazio-sistema bat sortuko du, norekin, zertarako, maiztasuna eta edukiak zehaztuz. Udalarekin egin beharreko koordinazioaz gain, beste eragile hauekin ere lan egin beharko da: Gizarte-zerbitzuekin, Hizkuntz-normalizaziorako sailarekin, Hezkuntza-sistemarekin eta zerbitzu eta baliabide

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

komunitarioekin (kultura, kirola, parte-hartzekoak, aisialdikoak). Horrekin batera, Oinherri Herri Hezitzailea Elkartearen arteko lankidetzarekin jarraituko da, herriko haurren hizkuntza, hezkuntza eta aisia alorrean ekintza zehatz eta parte-hartzaileak abian jartzeko.

Gainera, **NZa**k arreta berezia eskainiko dio familiekiko harreman iraunkorrari eta inguruan dituen beste alor batzuetako eragile edo zerbitzuekin sarean laguntza eman eta lan egiteari.

5.3. Zehar-lerroak

Esan bezala, inklusioa, hezkidetza eta genero-berdintasuna eta euskara izango dira zerbitzuaren zehar-lerro nagusiak. Modu zehatz batean eta jarraian azaltzen diren irizpideen arabera garatuko dira. Zehar-lerroak zerbitzuaren fase guztietan landuko dira: diseinuan, plangintzan, esku-hartzean eta ebaluazioan txertatuko dira. Gainera, kontuan hartu beharko dira udal-departamentuek garatu ditzaketen planak etab.

a. Inklusioa. Zailtasunen bat duten nerabeei zerbitzuan parte hartzea erraztu behar zaie. Nerabeen aniztasunari dagokionez, behar bereziak dituzten nerabeei arreta berezia eskaini beharko die Topalekuak (gizarte-zailtasun egoeran daudenei, ezintasun fisiko, psikiko edo sentsorialak dituzten nerabeei, jatorriz beste kultura batekoak diren nerabeei…).

b. Hezkidetza eta sexu-genero-berdintasuna. Jendartean egun oraindik ere indarrean dauden sexu-generoen arteko botere-harremanak kontuan hartuz, eskaintzen den zerbitzua hezkidetzan eta sexu-genero-berdintasunean oinarritutakoa izango da. Horrela, nerabe bakoitzaren ezaugarrien eta berezitasunaren arabera, sexu-genero sistemak ezarritako arauetatik at egiten den heziketa sustatuko da.

c. Euskara. Nerabeen onurarako izango da Nerabe-zerbitzuan euskararen erabilera sustatzea. Batez ere, erabilera soziala indartzera begira, nerabeei eskolaz kanpo euskaraz erabiltzeko benetako aukerak emango zaizkie eta hizkuntzarekin harremana zainduko da. Udalak duen euskara-plana kontuan izanda, hizkuntz-normalizazioa bultzatzea, bai euskararen erabileran, bai euskal nortasun eta kulturarekiko errespetutik, betiere diferentziak balioan jarriz. Nerabeentzako zerbitzuaren hizkuntza euskara izango da, zerbitzu eta lan-hizkuntza; hau da, zuzeneko arreta zein lanerako ere (koordinazioak, harremana, difusioa, txostenak…).

d. Kulturartekotasuna. Oiartzunen jatorri ezberdineko pertsonak bizi dira; Udalaren lehentasuna da zubiak eraikitzea egoiliarren eta etorri berrien artean. Errespetuzko elkarbizitza bermatzeko eta komunitate zaintzailea izateko, ezinbestekoa da kultura ezberdinen arteko hartu-emanak sustatzea. Horregatik

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

guztiagatik, estrategikoa da Topalekua jatorri ezberdineko herritarrentzako zerbitzua izatea.

6. NZ ZERBITZUKO LANTALDEAK

Zerbitzuak era egokian eskaini ahal izateko, esleipendunak lantalde egokia jarriko du dokumentu honetan zehazturik datozen programak gauzatzeko. Nerabeen mundua eta haien beharrei erantzuna emateko ezagutza nahikoa duten giza baliabideak arituko dira zerbitzuan.

6.1. Giza baliabideak

Zerbitzua taxuz emateko, lan-talde egokia jarriko du esleipendunak. Gutxienez, langile hauek arituko dira zerbitzuan: koordinatzaile teknikoa, bi hezitzaile eta begirale bakarra.

Kontratuak irauten duen bitartean, pertsonalean aldaketaren bat balego, arrazoia edozein dela ere, edo zerbitzuaren beharrengatik aldaketaren bat emango balitz, esleipendunak jartzen duen ordezkoak bete beharko du lan-postu horretarako ezarritako profila. Edonola ere, Oiartzungo Udalaren oniritziarekin egin beharko da langileen ordezkapen edo kontratazio oro.

6.1.1. Koordinatzaile teknikoa

Langile honek, gutxienez, urtean 215 orduko dedikazio frogagarria izan beharko du Oiartzungo Topalekuko heziketa proiektuko koordinatzaile lanetarako.

Ordu horiek baliagarriak izango dira proiektu hezitzailearen koordinaziorako, egun berezien antolaketarako, beste udal-zerbitzuekin elkarlanean aritzeko eta Udalak beste erakunde batzuekin (Oinherri…) duen lankidetzaren jarraipena egiteko, besteak beste. Ordu horiek ezingo dira baliatu enpresaren barne lanketenetarako (nominak, kontratuak, eta abar).

6.1.2. Topalekua

Ostegunetik igandera (biak barne), **hezitzaileak eta begiraleak** egongo dira arreta zuzena ematen Topalekuan: irailaren bigarren hamabostalditik ekainaren 15era bitartean (biak barne), aurrerago zehaztutako ordutegiaren arabera. Iraileko bigarren hamabostaldia, zerbitzuaren irekiera prestatzeko erabiliko da.

Ekainaren 15etik urriaren 1era, Topalekua itxita egongo da.

Hezitzaile eta begirale bakoitzak zuzeneko arretako eta barne-laneko ordu hauek bete beharko ditu:

Zerbitzuaren irekiera prestatzeko (irailaren bigarren hamabostaldia):

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

Barne lanerako: astean, 10 ordu.

Lan hau bi hezitzaileek soilik egingo dute.

Hartzaileei zerbitzua emateko (urriaren 1etik, ekainaren 15era):

- *Ostegunak:*
  Arreta zuzena: 3 ordu
  Barne lanerako: 4 ordu. Banaketa, esleipendunak eta Gazteria- eta Kirola-saileko arduradunak adostuko dute ikasturte hasieran.

- *Ostiralak:*
  Arreta zuzena: 4 ordu
  Barne lanerako: 2 ordu. Banaketa, esleipendunak eta Gazteria- eta Kirol-saileko arduradunak adostuko dute ikasturte hasieran.

- *Larunbatak:*
  Arreta zuzena: 4 ordu

- *Igandeak:*
  Arreta zuzena: 3 ordu

Osteguneta, bi hezitzaile egongo dira. Ostiraletik igandera, bi hezitzaile eta begirale bakarra; begiralea zuzeneko arreta orduetan bakarrik egongo da.

Jasotze-lanak zuzeneko arreta-ordutegiaren barruan sartuko dira.

- *Gabonetan eta Aste Santuan*
  Gabonetan, 8 egun eta, Aste Santuan, beste 8 egun **2 hezitzaile eta begirale bakarra** egongo dira. Egun bakoitzean, arreta zuzena 4 ordukoa izango da.

- *Festa egun berezietan*:
  (Xanistebanak (2 egun), 2 **hezitzaile eta begirale bakarra** egongo dira. Egun bakoitzean, arreta zuzena 4 ordukoa izango da,. Barne lanerako 2 ordu gehiago izango dira.

- Irteerak: ikasturtean zehar 3 irteera aurreikusten dira nerabeekin: horietako bik egun osoko iraupena izango dute eta beste batek asteburu osokoa. Irteera horietarako **2 hezitzaile eta begirale bakarra** beharko dira.

Kontratu honen baitan, Udalak aurreikusten du begirale bakarra kontratatzea, 1/15 ratioa erabiliz irteeretarako. Begirale gehiago beharko balira, Udalak hartuko luke bere gain begirale horien kostua. Aitzitik, begirale gutxiago beharko balira, izen-emate gutxiago

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

izan direlako, Udalarekin doituko du esleipendunak, kontratua arautzen duen baldintza-agirien baitan aurkeztu beharko duen memoria ekonomikoan.

Guztira, langile bakoitzeko 43 lanordu aurreikusten dira irteeretan.

Aurrez zehaztutako egunetan, ikastaro trinkoak antolatuko dira (sorospena, "Hezitzaileak asko egin dezake" (HAED)…), eta Topalekuko begiraleek derrigorrez egingo dituzte. Saio horietarako 20 ordu aurreikusten dira orotara.

Laguntza berezia behar duen haurrik balego, beharrezko neurriak hartuko dira aukera berdintasunari behar bezala erantzuteko eta dagozkien bitartekoak erabiliko dira. Kasu bakoitzean arlo horretan indarrean dagoen araudia aplikatuz. Nolanahi ere, neurri horiek Gazteria- eta Kirol-saileko arduradunarekin adostuko dira.

6.2. Langileen prestakuntza-baldintzak

Zerbitzuan lan egingo duen **koordinatzaile teknikoak** ondoko prestakuntza-baldintza hauek bete beharko ditu:

- Gizarte-hezkuntzako gradua edo erdi-mailako edo goi-mailako unibertsitate gradua izatea (Gizarte-lana, Soziologia, Psikologia, Pedagogia edo Magisteritza ikasketak). Adierazitako titulazioen ordez, ordezkatu ahal izango dira profesionaltasun-ziurtagiriak edo antzeko beste titulazio batzuekin.

  Gainera, langile guztiek prestakuntza espezifikoa izan beharko dute aisialdian, haurtzaroan eta gaztaroan, edo, gutxienez, urtebeteko esperientzia lanpostu horietan edo antzekoetan.

- Euskara: Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila. (3. Hizkuntza-eskakizuna, EGA titulua edo horien baliokidea)

  Zerbitzuan lan egingo duten **hezitzaileek** ondoko prestakuntza-baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Gizarte-hezkuntzako gradua edo erdi-mailako edo goi-mailako unibertsitate gradua izatea (Gizarte Lana, Soziologia, Psikologia, Pedagogia eta Magisteritza ikasketak). Adierazitako titulazioen ordez, ordezkatu ahal izango dira profesionaltasun-ziurtagiriak edo antzeko beste titulazio batzuekin.

  Gainera, langile guztiek prestakuntza espezifikoa izan beharko dute aisialdian, haurtzaroan eta gaztaroan, edo, gutxienez, urtebeteko esperientzia lanpostu horietan edo antzekoetan.

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

- Euskara: Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila. (3. Hizkuntza eskakizuna EGA titulua edo horien baliokidea)

Zerbitzuan lan egingo duten **begiraleek** ondoko prestakuntza-baldintza hauek bete beharko dituzte:

- Haurren eta gazteen aisialdiko hezkuntza-jardueretako begirale-diploma, Eusko Jaurlaritzak edo erakunde baliokide batek emana, indarrean dagoen araudi aplikagarriaren baitan, edo haurren eta gazteen hezkuntza-aisialdiko jarduerak dinamizatzeko profesionaltasun-ziurtagiria, edo animazio soziokulturaleko eta turistikoko goi-mailako teknikariaren titulua edo ingurune naturaleko eta aisialdiko gida-teknikariaren titulua edo Eusko Jaurlaritzak edo erakunde baliokide batek emana, indarrean dagoen araudi aplikagarriaren baitan, edo homologatutako beste titulazio baliokide bat.

- Euskara: Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila. (3. Hizkuntza-eskakizuna, EGA titulua edo horien baliokidea)

Guztiek, haurrak eta nerabeak babesteko sistemaren aldaketari buruzko 2015eko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak ezarritakoa betez, Delitugile sexualen Erregistro Nagusian sartu gabe dagoela egiaztatzen duen ziurtagiria izatea.

Esleipendunak bermatuko du, sor daitezkeen ordezkapenetan ere, langile berriek titularraren baldintzak betetzea. Hasierako pertsonalean edozein aldaketa egiteko, Udalak oniritzia eman behar du.

6.3. Eginkizunak

Koordinatzaile teknikoaren funtzioak

Koordinatzaile teknikoak lantaldearen koordinazioaren ardura izango du. Hezitzaileei laguntza teknikoa emango die eta gidatu egingo du etengabeko gogoeta eta segimendua, eguneroko lanari ikuspegi berriak emanez. Orientazioa eta bide-laguntza emango die hezitzaileei, beraien lana erraztuz. Honako hauek izango dira bere eginkizun nagusiak:

- Zerbitzuaren oinarriak ezartzea eta beharren ebaluazioa bideratzea.
- Hezitzaileen hasierako eta etengabeko prestakuntzan laguntzea (hezitzaileen heziketa beharrak autematea eta hau planifikatzea).
- Esku-hartzearen analisi orokorra gidatzea.
- Hezitzaile-taldea dinamizatzea.
- Esku-hartzearen jarraipena egitea.
- Nerabeen dinamikak behatzeko jarraibide batzuk adostea eta jarraipen-sistema bat izatea bermatzea.
- Hezitzaileei aholkuak eta orientabidea ematea lan hezitzailea burutzeko.

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

- Sareko lan-sistema komunitario batean parte hartzea.
- Beste eragile batzuekin koordinatzea: gizarte-zerbitzuak, hezkuntza zerbitzuak, kultur zerbitzuak, Oinherri, Gaztematikako hezitzaile foroak, eskualdeko kuadrillategi etab.
- Hezitzaile-taldearen koordinazioa gidatzea.
- Hezitzaileekin banakako koordinazioa egitea.
- Zerbitzuaren ardura duen teknikariarekin koordinatuta lan egitea.
- Lan-taldearen antolaketa ahalbidetzea:
  - Zereginak eta denborak zehaztea.
  - Hezitzaileekin batera, espazioak eta jarduerak antolatzea.
  - Baliabide materialak kudeatzea.
- Hezitzaile bakoitzak/talde osoak zerbitzuko arlo desberdinen inguruan eginiko hausnarketak ahalbidetzea, ondoren bateratze-lana egiteko.
- Zerbitzuaren plangintza eta sistema finkatzea Udaleko teknikariarekin.
- Zerbitzuaren jarraitasuna eta kalitatea bermatzea.
- Gaztematikak eskaintzen duen foro eta formakuntza-saioetan parte hartzea.
- Oarsoaldea Hezitzailea sail arteko Batzordeko bileretan parte hartzea, hala badagokio.
- Nerabeen iritzia jasotzea.
- Zerbitzuaren erabiltzaileen datuak biltzea, sexuaren arabera bereizita.
- Lan-taldean egindako aldaketen berri ematea udaleko teknikariari.

Hezitzaileen funtzioak

Hezitzaileen funtzioak honako hauek izango dira:

- Nerabeen beharrak ebaluatzeko prozesuan parte hartzea.
- Zerbitzuaren funtsatze-fasean parte hartzea.
- Nerabe guztien parte-hartzea sustatzea (neskak eta mutilak, koadrilak, bakarrik daudenak, nerabe desberdinak, zailtasunak dituzten nerabeak, etab.).
- Nerabeei buruzko ideia positiboak sortzen laguntzea komunitatean eta inguruan.
- Nerabeen familietara hurbiltzea.
- Nerabeez arduratzen diren beste eragileei zerbitzuan parte hartzen laguntzea.
- Nerabeen hezkuntza-berezitasuna ulertzea, hezteko, laguntzeko eta eragina izateko.
- Zerbitzuaren zeharkako lerroak (inklusioa, berdintasuna, euskara eta kulturartekotasuna) sendotzea.
- Prestakuntza- eta trebakuntza-plana garatzen laguntzea.
- Zerbitzuaren kalitatearen konpromisoa hartzea.
- Gizarte eta heziketako esku-hartzea definitzea.
- Heziketa-prozesuak aktibatzea esku-hartzea garatzeko.

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

- Nerabeen beharretan eta eskaeretan oinarritutako programazioa garatzea, beraien motibazioen, kezken eta ekimenen arabera.
- Zerbitzuaren jarduera-eremuak aztertzea, osatzea, proposamenak egitea eta garatzea.
- Zerbitzuaren presentzia beste espazioetan (kalea, lokalak…) garatzea.
- Ikuspegi komunitarioa txertatzea zerbitzuan garatzen diren jarduera guztietan.
- Zerbitzuaren komunikazio-beharretan eta zabalkundean laguntzea.
- Komunitatean parte hartzea, zerbitzuak nerabeak izateko protagonistatzat.
- Sare-lana bultzatzea, eraikitzea eta sustatzea.
- Zerbitzua komunitatean eta lurraldean txertatzen laguntzea eta komunitateko eragile izatea.
- Herriko baliabideak eta zerbitzuak ezagutzea.
- Udaleko beste sailen eta jardueren ezagutza izatea.
- Komunitateko zerbitzuen artean trukatzen den informazioa kudeatzeko sistema bat eratzea.
- Nerabeez arduratzen diren beste baliabide eta sistema batzuetako profesionalekin koordinatzea.
- Aisialdi-baliabideekin koordinatzea.
- Zerbitzuaren jarraipena egiteko sortzen diren organoetan parte hartzea.
- Zuzeneko esku-hartzearen antolaketan parte hartzea.
- Antolatzen diren irteerak koordinatzea eta horietan parte hatzea.
- Eskualdeko kuadrillategiko nerabeentzako ekintzetan parte hartzea.
- Antolatzen diren ekintzak programatzea, koordinatzea eta dinamizatzea.
- Datuak eta informazioa kudeatzea.
- Baliabide materialak kudeatzea.
- Zerbitzuaren garapen teknikoan eta antolakuntzan parte hartzea.
- Zerbitzuaren planifikazioa, sistemaren diseinua eta lanketa egitea.
- Zerbitzuaren programazioa eta eguneroko jarduera planifikatzea.
- Zerbitzuaren ebaluazioan parte hartzea.
- Nerabeen iritzia jasotzea.
- Zerbitzuko erabiltzaileen datuak jasotzea, sexuagatik bereizita.
- Gaztematikak eskaintzen duen foro eta formakuntza saioetan parte hartzea.

Begiraleen funtzioak

Begiraleen funtzioak honako hauek izango dira:

- Hezitzaileek planifikatutako guztia gauzatzeko beharrezkoa den lanketa egitea.
- Zuzeneko arretaren barnean, nerabeei harrera egitea eta arreta eskaintzeaz arduratzea.
- Jarduerak programatzea eta dinamizatzea.

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

- Udalak izendatutako lekuak txukun eta behar bezala zaintzea. Jarduera-egunetan espazioak irekitzea, ordenatzea eta ixtea.
- Bilerak egitea hezitzaileekin programa hasi aurretik (prestaketa), dirauen bitartean (jarraipena) eta amaitu ondoren (balorazioa).
- Antolatzen diren ekintzetan laguntzea.
- Oarsoaldeako hezitzaile mahaiak eskaintzen duen formakuntza-saioetan parte hartzea.
- Funtzio guztiak egokituak izan daitezke eta gazteria-teknikariaren zuzendaritzapean gauzatuko dira.

Esleipenduna behartuta dago Lan- eta Gizarte-segurantzaren, higiene- eta arrisku-prebentzioaren arloan indarren dauden legezko xedapenak betetzera. Udalak ez du inolako erantzukizunik izango xedapen horiek betetzen ez badira.

6.4. Udalarekin harremanetarako arduraduna

Enpresa esleipendunak Udalarekin harremanak izateko eta behar den informazioa emateko arduradun bat izendatuko du. Enpresako arduradun horrek ahalmena izango du afera teknikoei zein administratiboei irtenbidea emateko. Izendatutako arduradun horrek uneoro erraz aurkitzeko moduan egon beharko du enpresa adjudikaziodunak adierazitako komunikazio-sistemaren bidez.

6.5. Kontratatutako langileen agirien aurkezpena

Kontratua indarrean hasi aurretik, edo indarrean hasi ondoren aldaketarik emango balitz, enpresa esleipendunak zerbitzuan lanean diharduten langileen ondorengo agiriak aurkeztu beharko ditu:

- Gizarte-segurantzan alta eman izana egiaztatzen duen agiria.
- Lan-kontratuaren kopia.
- Eskatutako prestakuntza betetzen dutela egiaztatzen duten agiriak (titulazioa, eskarmentua, hizkuntza-gaitasuna, sexu-delituen erregistro zentraleko ziurtagiri negatiboa).

7. AZPIEGITURAK ETA BITARTEKO MATERIALAK

7.1. Azpiegiturak

Oiartzungo Udalak jarriko ditu Landetxe 2 plazan duen lokala eta oinarrizko ekipamendua (lokalaren eta bulegoaren altzariak eta oinarrizko materiala). Udalaren kontura izango dira argindarra, ura, telefonoa eta Topalekuan dagoen sareko hartunean

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

Interneteko konexioa. Eraikinean Wi-Fi seinalea dago Internetera konektatzeko. Ordenagailuak, inprimagailua eta zerbitzua emateko beharrezkoak diren bestelako informatika-baliabideak esleipendunak berak jarri beharko ditu. Udala arduratuko da oinarrizko garbiketaz.

Ikus-entzunezko baliabideei dagokienez, nerabeekin adostuko dira eta Oiartzungo Udalak jarriko ditu. Zerbitzua ematen hastean, Udalak baliabide horien funtzionamendu zuzena bermatuko du, baina mantentzea esleipendunak egingo du kontratuak irauten duen bitartean.

Esleipenduna arduratuko da bulegoko materialaren hornikuntzaz eta lokala eta ekipamenduaren erabilera zuzenaz. Lokala eta bulegoa txukun mantentzearen ardura esleipendunarena ere izango da. Baita ere bestelako erabileragatik sortu daitezkeen gastuak, tasak eta gainerako zergak.

Enpresa esleipendunak, nerabeekin garatu behar dituen betebeharrak asetzeko orduan, ahaleginduko da ekipamenduak eskaintzen dituen aukera anitzak baliatzen eta optimizatzen.

Gabonetan eta Aste Santuan, Topalekuko jarduerak bideratzeko, ahalko dira auzoetako zenbait azpiegitura erabili (auzo-elkarteen lokalak, pilotalekuak…).

Arreta zuzena ekipamendutik kanpo eman ahalko da Oiartzungo herriak eskaintzen duen baliabideak aprobetxatuz (herriko plazak, ikastetxeak, natura…).

7.2. Bitarteko materialak

Zerbitzuko ekintzak burutzeko eta beharrezko materiala erosteko urteko diru-kopurua zehaztuko da lizitazioaren prezioan. Zenbateko hori finkoa izango da eta ezingo da eskaintzan behera hobetu. Kopuru hori derrigor erabili beharko du esleipendunak ekintzetarako edota materiala erosteko, eta 5.2.1. puntuan azaldu bezala, gastu horiei dagozkien zuriketa eta ordainagiriak urtean behin aurkeztu beharko dizkio Udalari, gastuen eta diru-sarreren balantzearekin batera. Arrazoiren batengatik ekintzetarako eta materiala erosteko zehaztuta zegoen kopuru osoa ez balitz gastatuko urtean zehar, erabili gabeko diru-kopurua (zehaztutako kopurua ken erabilitakoa) Udalari itzuli beharko dio lizitatzaileak, zuriketa aurkeztearekin batera.

8. ZERBITZUKO EGUTEGIA ETA ORDUTEGIAK

Topalekua

Urriaren 1etik ekainaren 15arte (biak barne), ostegunetik igandera:

- Ostegunak: 17:00etatik 20:00etara
- Ostiralak eta larunbatak: 17:00etatik 21:00etara

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

- Igandeak: 17:00etatik 20:00etara

Topalekuan ekintzak egingo dira Gabonetan eta Aste Santuko oporretan zehar. 8 egun Gabonetan eta beste 8 egun Aste Santuetako nerabeen oporraldietan, egunero lau orduko jarduerak antolatuz.

Itxita egongo diren egunak:

- Abenduak 24 eta 31.
- Gabonak eta Aste Santuko asteburuak itxita.
- Ekainaren 16etik irailaren 30era ekipamendua itxita egon da (irailaren 15etik urriaren 1era, barne lanak).

ORDUTEGIA:

Lan-egutegiaren gainerako zehaztapen guztiak Gazteria- eta Kirol-sailarekin adostuko dira.

9. BETEBEHAR TEKNIKOAK

9.1. Euskara: bete behareko gutxieneko hizkuntza-irizpideak

1.- Kontratu honek nahitaez bete behar du hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren araubidea, Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren 6. artikuluan eta Euskararen erabilera normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean ezarria eta, besteak beste, Udalaren barne erabilera planean erregulatua.

2.- Enpresa kontratistak Udalaren hizkuntz araudiaren arabera jokatuko du kontratuaren xede diren jarduera guztietan, bai ahozkoetan, bai idatzizkoetan; eta, beraz, enpresak Udalarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak Udalaren lan hizkuntzaren araberakoak izango dira, 179/2019 Dekretuaren, azaroaren 19koaren, III. kapituluan zehaztutako aukerari jarraiki. Oiartzungo Udalak lehenetsi egiten du euskararen erabilera barne nahiz kanpo harremanetan. Horrekin lotuta, Udalak aukera izango du kontratu mota honen bidez sortzen diren ahozko zein idatzizko komunikazio mota guztiak (kontratu, faktura, txosten, bilera, kontsultak...) euskaraz eskatzeko esleipendunari.

3.- Horrela, bada, zerbitzuaren hizkuntza nagusia euskara izango da, eta kontratatuko enpresaren betebeharra izango da hori bermatzeko beharrezko neurriak hartzea, Oiartzungo Udalaren Hizkuntz Normalizaziorako sailaren lankidetzaz eta aholkularitzaz baliatu ahal izango duelarik.

Beraz, kontratu hau gauzatzean herritarrekin euskarazko harremanak ziurtatuko dira, Udaleko planean herritarrekiko harremanetarako finkatutako irizpideen arabera, betiere herritarren hizkuntza eskubideak errespetatuz; lehen hitza euskaraz egingo zaie.

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

Halaber, herritarrekin bideratzen diren era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak eta bestelako agiriak) euskaraz egingo dira, eta herritarrak eskatzen duenean edo behar-beharrezkoa denean euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Horretarako, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udaleko Hizkuntz Normalizaziorako sailera eramango dira, zuzentasuna egiaztatzeko eta, maila desegokia balitz, enpresari eskatuko zaio bere kontura zuzentzea.

4.- Era berean, administrazioarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, zerbitzua gauzatuko duten giza baliabideek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte, hizkuntza gaitasunei dagokienez. Horregatik, eman beharreko zerbitzuaren izaera kontuan izanik, zerbitzura atxikituko diren langileek euskarari dagokionean Europako Erreferentzia Markoaren C1 gaitasun maila daukatela (EGA edo baliokidea) egiaztatu beharko da, karatularen 11.3 atalean zehaztutakoarekin bat.

Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten giza baliabideek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna. Halaber, enpresa kontratatu eta geroago lanpostu horretarako pertsona berririk sartuko balitz, horrek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko du.

Subrogazio kasuetan, langileek eskatutako hizkuntza-gaitasuna betetzen ez badute, kontratua euskaraz gauzatu ahal izateko, beharrezko neurriak adostuko dira herritarren eta bezeroen hizkuntza eskubideak bermatze aldera.

5.- Errotuluak, oharrak, seinaleak, kartelak eta hizkuntza paisaia orokorreko gainerako elementuak eta komunikazioak piktograma bidez egingo dira eta euskarazko azalpen mezua izango dute ondoan. Piktograma bidez egin ezin direnean, euskaraz egingo dira mezuak ezagunak edo ulergarriak baldin badira. Salbuespen gisa, aurreko bi kasuak ezinezkoak direnean, elebitan egingo dira, euskarari lehentasuna emanaz, beti ere aldez aurretik Udalarekin adostuta.

6.- Kontratuaren arduradunak egingo du finkatutako hizkuntza baldintzen betetzearen jarraipena, gainerako baldintzen jarraipena egiten duen modu eta epe berdinetan, eta horren berri emango dio Udaleko Hizkuntz Normalizaziorako sailari. Ondoren, Hizkuntz Normalizaziorako Sailak bere balorazioa egingo du, oniritzia edo neurri zuzentzaileak proposatuz.

10. ZERBITZUAREN KOMUNIKAZIOA

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

Zerbitzuaren zabalkundeaz eta komunikazio-ekintzez esleipenduna arduratuko da, Gazteria- eta Kirol-sailarekin koordinatuz. Plangintza-prozesu osoan zehar, komunikazioko ekintzak kontuan hartuko dira. Zerbitzuaren inguruko informazioa eskainiko zaie hartzaileei, eragileei eta herritarrei. Horrez gain, zerbitzuaren erabilera sustatuko da.

Zerbitzuaren inguruko informazio orokorra (helburuak, lan-ildoak…) zein zehatza (egitarauak, jarduerak, ordutegiak…) eskainiko zaie hartzaileei, eragileei eta herritarrei, aldez aurretik esleipendunak eta Udalak adostutako zabalkunde-planari jarraiki. Plan horretan zehaztuko dute zein informazio zabaldu eta noiz (ikasturte hasieran, opor-garaian, data zehatzetan…), zein helbururekin (erabilera sustatzea, egitarauen berri ematea…) eta zein bide erabili (komunikabideak, esku orriak…).

Komunikazio-zabalkunderako euskarri digitala (bloga edo web orria) esleipendunak jarriko du eta bera arduratuko da elikatzeaz, eguneratzeaz eta mantentzeaz. Kontratua amaitzean, lan horretatik eratorritako “domeinu”, jabetza intelektual eta sortutako gainerako edukia Udalaren esku utziko du esleipendunak, bigarrenarentzako kosturik gabe.

Esleipenduna arduratuko da Udalak, bakarrik edo elkarlanean, gazteentzat sortutako euskarriak zabaltzeaz.

11. INBENTARIOA

Oiartzungo Udalak I. eranskinean jasotzen den ekipamendua utziko du esleipendunaren eskuetan.

Zerbitzu-prestazioarekin hasi baino lehen, esleipendunak ikuskatu ahal izango du instalazioa eta ekipamendua, eta espreski adierazi beharko dute haien egoerarekin eta helburuekin bat datorren, eta identifikatu ditzaketen gabezia guztiak azaldu ahalko ditu; horrela, instalazioa eta ekipamenduak zerbitzuan jarri aurretik, gabezia horien erantzuleek behar diren zuzenketak egin ahalko dituzte.

Esleipenduna izango da instalazioaren, altzarien eta ekipamenduen funtzionamenduaren eta mantentze-lan txukunaren eta egokiaren erantzule bakarra.

Esleipendunak, kontratuak irauten duen bitartean, inbentario eguneratua eduki beharko du; zainketaz arduratuko da eta Udalari jakinaraziko dio edozein desagertze eta hondatzea gertatu ezkero.

Udalerriko beste eragileek zerbitzuko materiala behar izan ezkero, haren eskura utziko du, betiere, kontrolpean izanda.

ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04

OIARTZUNGO UDALA

Kontratua indarrean sartzean Udalak utzitako ondasun guztiak eta esleipendunak instalakuntzei gehitu diezazkiokeenak Oiartzungo Udalaren esku geratuko dira kontratua amaitzen denean, betiere egoera onean eta funtzionatzeko moduan.

12. IKUSKAPENA

Udalak **NZ** zerbitzuarekin zuzenean lotutako jarduerak ikuska ditzake, esleipendunaren betebeharrak egiaztatzeko. Esleipendunaren baldintza teknikoak betetzen diren edo ez ikuskatu ahal izango du. Administrazioak zerbitzuak kanpotik ikuskatzearekin batera, esleipendunak zerbitzuak etengabe ikuskatu behar ditu barrutik.

Oiartzunen, sinaduraren egunean

Julen Idarreta Cardona
Gazteria teknikaria

Elktronikoki sinatuta

Nork Sinatua / Firmado por: JULEN IDARRETA CARDONA - 72504346C
2025/05/26 12:53:16

EKS | CSV: **ESKU436793c2-4109-4cad-8390-21b549320c04**
Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310
Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06310